



## *Irakasleen prestakuntza*

# ***Ikasteari buruzko jabetze- -prozesua eta irakaslearen prestakuntza: egunkarien erabilera***

*Jasone Zenoz eta Diana Lindsay*

*Artikulu honek bigarren hizkuntza ikasteen izandako esperientziaren berri ematen du. Ingeleseko irakasleak dira egileak eta euskara eta alemaniera ikasteko prozesua deskribatzen dute. Esperientzia hauek kurtsuan zehar idatzitako oharretan islatzen dira, egunkariak irakasprozesuari zein norberaren estrategiei buruz gogoeta egiteko tresnak izan direlarik. Ikerketa-mota honetako ezaugarriekin batera metodologia azaltzen da, egileek aipatutako hizkuntzak ikasterakoan idatzitako hainbat ohar emanaz. Eraitzen arabera, bigarren hizkuntzak bereganatze-prozesuan motibazioa eta faktore afektiboek duten garrantzia azpimarratu ondoren, aldagai hauen eragina baloratzen dute. Era berean, ikasleek ikaskuntzarako eta irakasleen prestakuntzarako egunkariak erabiltzearen abantailak eztabaidatzen dira.*

### ***Irakastearen egunkariak***

Egunkariaren ikerketan, ikaste edo irakastearen esperientziari buruz lehenengo pertsonan egindako kontaketa jasotzen da. Irakastearen esperientzia egunkari pertsonal batean idatzi eta idatzitako ohar asko aztertu ondoren ezaugarri nagusiak biltzen dira.

Lehenengo egunkariak hizkuntzalari eta pedagogo profesionalak idatzi zituzten, ohargarri ez diren aldagai kognitibo eta afektiboak aztertze asmoz (Schumann, 1980; Bailey, 1980). Egunkari hauetan, hizkuntzak

ikastearen esperientziari buruz idatzi ondoren, autoreek narrazio introspektiboak aztertu zituzten, ideia nagusiak aurkitu nahian. Schumann-en (1980) esperientzian, ondorengo ideiak izan ziren aipagarrienak:

- ikasleen arteko lehiaketa eta lankidetzak;
- Schumann-ek entzuteko eta hitz egiteko erabilitako estrategiak;
- irakasteko tekniken aurreko erreakzio pertsonala.

Bailey-ren (1980) arabera, berriz, lehia eta herstura ditugu atal nabarmenak.

Egunkariaren ikerketa fokapen antropologiko eta etnografikoan kokatzen den prozedurari zuzendutako ikerketa dugu. Ikerketa-mota honetan metodo esperimentalak eta kontrol-taldeak ez dira kontuan hartzen, ikerketa kontrolik gabeko behaketan eta deskribapenean oinarritzen delako. Egunkariak, beste metodoekin batera (elkarrizketak, galdesortak, kasu-azterketak), gelako zein kanpoko datuak jasotzeko erabili izan dira (Nunan, 1989).

Egunkariaren ikerketan, beste ikerketa kualitatiboetan bezala, fidagarritasun eta jeneralizazioaren arazoak sortzen dira. Fidagarritasunari dagokionez, zera dugu lehenengo arazoa: egunkariak narrazio erretrospektiboetan oinarritzen direla. Nahiz eta eskola bukatu bezain laister idatzi, narrazioak oroimenaren iragazkinean pasa behar dira eta prozesu honetan zenbait zehaztasun galdu egiten dira. Bestalde, jakina denez, nahiz eta saiatu, idazterakoan ez gara beti leialak izaten eta norberaren hizkuntz gaitasunaren arabera zuzentasun handiagoz islatzen ditugu geure esperientziak. Jeneralizazioari dagokionez, pentsa genezake pertsona baten hizkuntza ikasteko esperientzia ezin dela beste batengan zehazki errepikatu.

Aipatutako arazoak kontuan hartu arren, azken urte hauetan, pedagogian eta ikerkuntzan, egunkariak xede desberdinak eskuratzeko erabili izan dira; eta pedagogiaren arloan ondoren aipatzen diren helburuotarako:

- 1 Hizkuntzak ikastearen esperientziei buruzko informazioa jasotzeko.
- 2 Irakasleen prestakuntzarako, irakaskuntza gogoetatsurako eta irakasleen autoebaluaketarako erabiltzen ari den fokapenean kokatzen baitira egunkariak.
- 3 Ikerkuntz ekintza eta klaseko ikerkuntzarako, batez ere, teknika berriak erabiltzen direnean.
- 4 Egunkari akademikoak idazteko, ikastaro akademikoan aurreko irakaslegaien erreakzioa aztertzeke.
- 5 Zuzendarien prestakuntzarako ikastaroetarako.

Ikerkuntzari dagokionez, ikerkuntzan bertan erabiltzeaz gain, egunkariaren azterketa beste lan objektiboagoaren hipotesiak sortzeko erabili izan da.

**Egunkariaren  
ikerketaren  
metodologia**

Egunkarien ikerketari ekiterakoan, Bailey-k (1990) proposatutako pausuetan oinarrituz, ondorengo prozesuari jarraitu zitzaien:

- 1 *Hizkuntzak ikastearen historia.* Egunkariaren idazleak hizkuntzak ikastearen historia pertsonala deskribatzen du.
- 2 *Hizkuntzaren esperientziaren narrazioa.* Hizkuntzak ikastearen esperientziako gertakizunak, sentimenduak eta zehaztasunak egunkari konfidentzian islatzen dira.
- 3 *Egunkari konfidentzialaren berrikusketa.* Autoreek idatzitako oharrrak berrikusten dituzte eta esanahia argituz bertsio publikoa prestatzen dute.
- 4 *Egunkariaren azterketa eta joera nagusien identifikazioa.* Oharrak irakurtzen dira, joera eta gertakizun esanguratsuenak identifikatuz.
- 5 *Datuen interpretazioa.* Aurkitutako faktoreak eztabaidatzen dira eta, hizkuntz pedagogiaren beste ikerketa eta teorizazioarekin kontrastatuz, esperientziaren interpretazioa eta balorazioa egiten da.

**Sujektuak eta  
kurtsoen  
deskribapena**

Esperientzia honen subjektuak artikulua idazleak izan ziren. **A** aztertzailearen lehenengo hizkuntza ingelesa da eta ingeleseko irakasleen hezlaria da. Gaztelania eta italiara eskolarik gabe ikasiak ditu eta frantsesa eskolan ikasi zuen. Aurkeztuko den esperientzia euskara ikastekoa da.

**B** aztertzailearen lehenengo hizkuntza gaztelania da eta hura ingeleseko irakaslea da. Euskara eta ingelesa ikasi ditu eta aztertu duen esperientzia alemaniera ikastekoa da.

Kurtsoen deskribapenari dagokionez, .1 taulan ematen dira zehaztasun batzuk.

<b>Aztertzailea</b>	<b>A</b>	<b>B</b>
Hizkuntza	Euskara	Alemaniera
Urtea	Bigarrena	Bigarrena
Asteko ordu kopurua	10 (6 klasetara joaten zen)	4
Ordutegia	3.30-5.30 p.m.	7-9 p.m.
Irakaslea	Jatorrizko hitzunik	Jatorrizko hitzuna
Testuliburua	Ez	Bai (estrukturala)
Ikasleen kopurua	10	10
Etxekolana	Bai	Bai

Metodoa	Azalpen gramatikalak eta "drill"ak binaka. Entzumena kasetatik.	"Drill" gramatikalak. Irakurgaiak. "Drillak" binaka. Entzumena kasetatik.
---------	---	---

Azertzaileek kurtsuan zehar egunkariak idatzi zituzten. Saiatu ziren eskola bukatu bezain laster idazten, eta zenbaitetan klasean edo atsedeanaldietan oharrak hartzen zituzten, zehaztasun garrantzitsuenak gogoratzeko asmoz.

Egindako egunkariak neurri batean bideratuta zeuden, azertzaileek bigarren hizkuntzaren bereganatzeari zein egunkariak idazteari buruzko informazioa zutelako.

**Egunkarien  
azterketa eta  
joera nagusien  
identifikazioa**

Egunkarietako joerarik garrantzitsuenak biltzeko asmoz, oharrak irakurri ondoren, lau taldetan sailkatu ziren: i) motibazioa eta faktore afektiboak, ii) klaseko interakzioa, iii) irakasmetodoa, iv) ikasestrategiak eta tankerak. Ondoren, sail bakoitzeko adibide batzuk aurkezten ditugu.

*Motibazioa eta  
faktore afektiboak*

- Oso nekatuta nago ordu honetan. Klase hau goizeko bederatzietan izatea gustatuko litzaidake.
- Gehiago praktikatzeko modua aurkitu behar dut: irratia, telebista, irakurtzea, norbaitekin hitz egitea. Astia. Dena denboraren arazoa da eta motibazioarena ere bai.
- Oporrak bukatu eta berriro eskolara! Azken hamar egunetan ez dut klaserik izan eta ez daukat joateko gogorik. Atzerrira joaten naizenean, euskara ikasteari ez diot zentzu handirik ikusten.
- Irakasleak Alemanian ikastaro trinkoak egiteko aukerari buruz hitz egin du. Hori da nik behar dudana. Beste lan guztiak utzi eta hiru edo lau astez Alemanian egon. Alemaniera ikasteko denbora. Zoragarria! Orain ikasteko motibatuagoa sentitzen naiz. Orain, hitzak behar ditut, gramatika, entzumenak...
- Klasera iritsi bezain laster (berandu beti bezala), astelehenean azterketa izango dugula esan didate. Ez dut uste ondo egingo dudarik, baina gutxienez ikasteko aitzakia bada.
- Erantzutea tokatzen zaienean, hoberenak ere bildurtu egiten dira. Tutik esan gabe gelditzen dira. Mk erdaraz zizakatzen du zerbait. J gorritu egiten da.
- Beste guztiak nik baino hobeto hitz egiten dute. Nire egoera desberdina dela pentsatzen dut, beste ikasleek konturatu gabe urteetan zehar kalean euskara asko ikasi dute eta.

*Interakzioa*

- Oso desberdina da helduekin eta gazteekin lan egitea! Gazteek denbora asko dutela pentsatzen dute eta ariketak azkar egiten dituzte

hitz egiteko astia izateko; guk, berriz, ondo dakigu denboraren balioa.

- Besteek atsedendian beren nortasunak gazteleraz erakusten dituzte: berbetan, erretzen, txisteak kontatzen. Ahaleginak egin behar ditut haiekin egoteko, niretzat gazteleraz ere zaila egiten baitzait “ni” izatea.
- Ikaskideekin, taldeka istorio bat idaztea gorroto dut. Hori da iaz egu-nero egiten genuena eta denbora galtzea iruditzen zait. Gazteleraz hitz egiten dugu idazten dugun bitartean.
- Binaka lan egitea gustatzen zait. Mrekin lan egitea atsegin dut. Oso ikasle ona da, eta berarekin ikasteko aukera daukat.

#### *Irakasmetodoa*

- Erraza izango litzateke hemengo ariketa batzuk informazio osagarriko (informazio-hutsarte) ariketa bihurtzea. Bestela, biek ikusten ditugun desberdintasunei buruz hitz egin behar dugu.
- Pavlov-en txakurrak! Baldintzak egiten ditugu, baina ulertu gabe errepikatzen dugu. Esaldia ahoskatu bezain laster ahazten zaigu.
- Poztu naiz irakasleak “Oso ondo” esan didanean. Ondo dago noizean behin zerbait ondo egin dazakedala ikustea.
- Klaseko denbora asko hitz desberdinen esanahia galdetzen eta idazten pasatzen dugula ematen du. Hau denbora galtzea iruditzen zait, hitz horiek ikasteko nahiko denbora ez dugulako. Orain konturatzen naiz errebisioak egitea oso beharrezkoa dela.

#### *Ikasestrategiak eta tankerak*

- Nora joan dira hizkuntz ikasle onaren estrategiak? Trikimailu guztiak erabiltzen ditut: nire aurrean daudenak zenbatu eta niri tokatzen zaidan esaldia prestatzen dut.
- Pertsona bakoitzak bere metodoa behar du. Ak, esate baterako, komunikatzeko egoeretatik edo elkarriketetatik ikas zezakeen; Lk, berriz, forma ondo menperatu behar du.
- *Isilik egoteko eskubidea*, mesedez! Errepikatu gabe entzutekoa. Nahiko ondo ulertzen dut, baina oraindik ez nago hitz egiteko prest.
- Ingelesa jakitea lagungarria iruditzen zait alemanierak nola funtzionatzen duen jakiteko.

Egunkarietako oharrak aztertu eta aipatutako joera nagusiak identifikatzerakoan, motibazio eta aldagai afektiboen garrantzia aipagarria da. Nahiz eta autoreak irakasleak izan eta tekniketan, metodoetan eta estrategietan interesaturik egon, ohar afektiboak beste guztiak baino askoz ugariagoak dira. Izan ere, bi egunkarietan nabarmena da ikasle ona izan beharra eta ikaskideek baino gutxiago jakiteko beldurra. Herstura, lehia, umorea eta motibazioa behin eta berriro aipatzen dira oharretan, batez ere autoreek ikasle hobek izatea espero zutelako. Aldagai afektiboak (herstura, konpetitibitatea eta autoestimazioa) beste egunkariaren ikerketetan ere oso garrantzitsuak dira (Allwright & Bailey, 1991).



## **Datuen interpretazioa**

Ohar afektiboak gertutik aztertuta, ondorengo ezaugarriak aurkitzen ditugu:

- 1 Irakasleei buruzko jarrerak onak dira.
- 2 Hizkuntzei buruzko jarrerak onak dira. Euskara eta alemaniera hizkuntza interesgarriak iruditzen zaizkie idazleei.
- 3 Ikaskuntzaren aldekoak dira jarrerak. Euskara eta alemaniera ikastea gustatzen zaie eta hizkuntza hauek ikasi nahi dituzte.
- 4 Espero zen baino ikasle txarragoak izateak herstura sortzen duela ematen du.
- 5 Motibazioak ez du indar handirik. Ez dugu ahalegin handirik egiten hizkuntza hauek ikasteko. Ahaleginik ez egiteko arrazoiak ondorengo hauek dira:
  - a. Euskara eta alemaniera ikasteaz gain, beste gauza asko egiten ditugu eta askotan ez dugu denborarik etxekolanak egiteko, ezta zenbaitetan klasetara joateko aukerarik ere.
  - b. Ez dugu hizkuntza hauetan komunikatzeko beharrik sentitzen.
  - c. Hizkuntzak azkar ikasteko itxaropenak ez dira handiak. Ez dugu uste asteen zenbait orduz “drill” batzuk eginez hizkuntzak ikasten direnik. Ariketa komunikatibo eta material autentikoaren falta nabaritzen dugu. Azterketak ditugunean edo hizkuntza erabiltzeko aukera ikustean, lan handiagoa egiten dugula konturatu gara.

Hizkuntzak ikasterakoan jarrera, motibazioa eta aldagai afektiboen papera benetan garrantzitsua da. Faktore hauen eragina orokorki onartuta egoteaz gain (Gardner, 1985; Larsen Freeman & Long, 1991; Skehan, 1989), haien garrantzia aldakortasunean datza. Bigarren hizkuntzako komunitatearekiko ukipen zuzenak zein medien bidezkoak hizkuntzak ikasteko behar komunikatiboa piztu dezake eta, honekin batera, bigarren hizkuntza ikasteko desira, eta motibazioaren indarra handitu ere bai.

## **Ondorioak**

Bigarren hizkuntzaren ikasleak izatea eta egunkariak idaztea oso esperientzia aberasgarriak izan dira garapen profesionalerako. Esperientzia hauek hemendik aurrera laneko ondorengo arlo hauetan eragina izango dutela iruditzen zaie:

- 1 Motibazio eta aldagai afektiboen garrantziaz konturatzeko.
- 2 Teknika pedagogiko onak eta txarrak ikusi ondoren geure teknikak ebaluatzeko.
- 3 Gure hizkuntz estrategia on eta txarrei buruzko informazioa eskuratzeko.
- 4 Gogoko dugun ikasteko tankera eta benetan duguna kasu guztietan bat ez datozela jakiteko.

- 5 Pertsonekin, hau da, atseginak eta gure gustukoak ez diren pertsonekin, eta ez gelek in lan egiten dugula ohartzeko.
- 6 Pertsona desberdinek hizkuntzak era desberdinetan ikasten dituztela ohartzeko, nahiz eta zenbait gauza amankomunekoak diren.
- 7 Azkenik, egunkariak idaztea askotan hizkuntza bat ikasteak suposatzen duen herustura eta frustrazioa islatzeko era bat izan da.

Egunkariak irakaskuntzan baliatzeko abantailak (Porter et al., 1990) ikastresna hauen erabilera bultzatu dute. Egunkariak hizkuntz irakaskuntzarako eta hizkuntz irakasleen prestakuntzarako tresna baliagarriak izan daitezke ondorengo arrazoiengatik:

- Ikasprozesua indartzeko balio dutelako.
- Bigarren hizkuntzan idazten direnean jarioasuna lantzeko ariketak izan daitezkeelako.
- Egunkaria idaztea prozesuaz konturatzeko esperientzia delako eta konfidantza biltzeko tresna ere bai.
- Egunkariak erabiltzeak ikaslea irakasprozesuan inplikatzera eramaten duelako.
- Egunkariak idazteak klasetik kanpo interakzioa sor dezakeelako, egindako oharrek beste ikaskideekin edo irakaslearekin eztabaidatzen baldin badira.
- Egunkariak ikasleei eta irakasleei “syllabusa” negoziatzeko aukera ematen dielako.

Aipatutako abantailak gain, egunkariak irakasleen prestakuntzarako ere tresna baliagarriak dira: bakoitzaren hezkuntzarako filosofia perfilatzeko, bai teoria eta praktika eta bai ikaskuntza eta irakaskuntza elkarlotzeko eta autoebaluaziorako tresna gisa erabiltzeko.

Egunkariak erabiltzearen arazo nagusia astia hartzea izaten da. Bestalde, egunkariak idaztea ez zaie guztiei erakargarri izango; eginkizun hau atseginago izango dute pertsona gogoetatsu edo introspektiboek.

## Bibliografia

**Allwright, D.** eta **Bailey, K.M.** 1991. *Focus on the language classroom. An introduction to classroom research for language teachers.* Cambridge: Cambridge University Press.

**Bailey, K.M.** 1980. “An introspective analysis of an individual’s language learning experience”. In Scarcella, R. eta Krashen, S. (edk.), *Research in second language acquisition.* Rowley: Newbury.

**Bayley, K.M.** 1990. “The use of diary studies in teacher education programs”. In Richards, J. eta Nunan, D. (edk.), *Second language teacher education.* Cambridge: Cambridge University Press.

**Gardner, R.C.** 1985. *Social psychology and second language learning.* London: Arnold.

**Larsen-Freeman, D.** eta **Long, M.H.** 1991. *An introduction to second language acquisition research.* London: Longman.

- Nunan, D.** 1989. *Understanding language classrooms: A guide for teacher-initiated action*. London: Prentice-Hall.
- Porter, P.A.; Goldstein, L.M.; Leatherman, J.** eta **Conrad, S.** 1990. "An ongoing dialogue: learning logs for teacher preparation". In Richards, J. eta Nunan, D. (edk.), *Second language teacher education*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Schumann, F.M.** 1980. "Diary of a language learner: a further analysis". In Scarcella, R. eta Krashen, S. (edk.), *Research in second language acquisition*. Rowley: Newbury.
- Skehan, P.** 1989. *Individual differences in second language learning*. London: Arnold.